

BILKURA DATUAK

EGUNA: 2014/11/04	TOKIA Udaletxea
HASIERA ETA BUKAERA ORDUA 18:00:00 - 18:30:00	

BILDUTAKOAK:

Lehendakaria: Inazio Azkarragaurizar Larrea (BILDU)

Zinegotziak: Amaia Larrañaga Galdos (BILDU)
Ander Rodriguez Lejarza (BILDU)
Josebe Landaluze Ruiz de Alegria (BILDU)
Josu Pereda Leceta (BILDU)
Maidor Morras Azpiazu (BILDU)
Omer Arregi Biain (BILDU)
Iratxe Zeziaga Mendizabal (BILDU)
Juan Antonio Barriocanal Arrieta (BILDU)
Joseba Erramun Askasibar Zendoia (BILDU)
Kepa Urteaga Garcia (BILDU)
Juan Carlos Garitano Ezcurra (EAJ-PNV)
Maria Ubarrechena Cid (EAJ-PNV)
Ibon Arrupe Aldecoceta (EAJ-PNV)
Juan Ramon Mendieta Garay (EAJ-PNV)
Aritz Arrieta Kabiketa (PSE-EE)
Raquel Diaz Larracoetxea (PSE-EE)
Francisco Garcia Raya (PSE-EE)
Miren Lorea Lana Jauregi (PSE-EE)
Joxe Etxeberria Iztueta (ARALAR)

Idazkaria: Amaia Gorrotxategi Zubizarreta

Beste funtzionario batzuk: Iñaki Balzategi Garai, Kontuhartzailea.
Juan Antonio Urdangarin Alustiza, Hirigintza saileko burua

BILDU EZ DIREN Iciar Lamarain Cenitagoya (PP)
UDALKIDEAK:

BERTARATZE Bilkura hasi denetik bukaeraraino ez da bertaratze zein irteerarik izan.
ETA IRTEERAK:

I. AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria): Arratsaldeon denoi, beno gutxi gorabehera zinegotzi guztiak gaude hemen, eta Plenoari hasiera ematera goaz.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.

2014ko urriaren 21eko bilkurako akta, aho batez, onartzen da.

2.- “ARRASATEKO HIRI ANTOLAMENDUAREN PLAN OROKORRA”REN AGIRIA HASIERA BATEAN ONTZAT EMATEA. (2011HPOA0001)

Udal Plenoak, aho batez, Hirigintza Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“ARRASATEKO HIRI ANTOLAMENDUAREN PLAN OROKORRA”ren agiria aurkeztu da, Udalaren Zerbitzu Teknikoek idatzitakoa.

Agiri hori honako dokumentu hauez osatuta dago:

- I.- Memoria
- II.- Hirigintza araudia
- III.- Antolamendu esparruen hirigintza fitxak
- IV.- Ekonomiaren eta finantzen aldetik duen bidegarritasunaren azterketa
- V.- Jarduera programa
- VI.- Ingurumen jasangarritasunari buruzko txostena
- VII.- Plano orokorrak

Agiria azterturik eta Eusko Legebiltzarraren 2/2006 Legearen (lurzoruari eta hirigintzari buruzko legea, ekainaren 30ekoa) 104, 90 eta hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera, Hirigintza batzordeak hauxe proposatu dio Udalbatzarrari:

I.- Hasiera batean ontzat ematea “ARRASATEKO HIRI ANTOLAMENDUAREN PLAN OROKORRA”ren agiria.

II.- Adieraztea Eusko Legebiltzarraren 2/2006 Legearen (lurzoruari eta hirigintzari buruzko legea, ekainaren 30ekoa) 85.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, hirigintzako planei hasierako onespina emateak berekin ekarriko duela edozein eratako onarpenak, baimenak eta lizentziak emateko aukera etetea planean xedatutakoaren ondorioz indarreko hirigintza-araubidean aldaketak izan dituzten eremuetarako.

Etete horren gehieneko epea egitamu orokorretako kasuan 2 urtekoa da.

III.- Aipatutako agiria jendurrean jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurraldean hedadura duen egunkarian dagokion iragarkia argitaratuz, jendurreko epea **2015eko urtarrilaren 27arte** izango delarik.

Akordioa sektore eskumenak dituzten bestelako administrazioei ere jakinaraziko zaie.

Bestalde, Eusko Legebiltzarraren 2/2006 Legearen, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa, 109. artikuluan ezarritakoaren arabera, “ARRASATEKO HIRI ANTOLAMENDUAREN PLAN OROKORRA”ren agiria Udal Planeamenduaren Aholku Kontseilura bidaliko da, dagokion txostena egin dezan.

JOXE ETXEBERRIA:

Bakarrik arratsaldeon guztioi. Bakarrik aipamen bat egin hau hasiera baten onartzea dala eta beraz oraindik aurrera begira beste pauso batzuk dazela egiteko. Orain jende aurrean jarriko da eta jende aurrean jartzearekin batera aholku kontseiluak berriz ere parte hartzen du eta gero behin-behineko beste onartze bat eskatzen du eta hori pentsatzen dugu legealdi honetan izango dala eta gero hortik aurrera Jaurlaritzara bidali behar da. Han ere begiratu dezaten eta ondo egin dugun edo ez. Eurek ere txosten egin behar dute eta gero datorren legealdian behin-betiko onartzea izango da.

Eta bide batez eskerrak eman aholku kontseiluan parte hartzen ari direnak eta animatu falta dan beste hiru edo lau bileretan ere parte har dezaten eta baita ere eskerrak eman hemen hirigintza sailetik fin ibili direlako lan hau egiten.

3.- CEI ARRASATE S.A.: KAPITAL ALDAKETAREN BERRI EMATEA UDAL PLENOARI.(2014LENP0012)

Idazkariak Enplegu batzordearen diktamena irakurri du eta Udalbatzarrak horren berri hartu du:

Arrasateko Udalak, 1996ko ekainaren 21eko eta 2000ko uztailaren 26ko Udal Plenoko erabakien ondorioz, Arrasateko Eraberrikuntza Industrialdea SA (CEI Arrasate SA) sozietateko kapital sozialean 114.480 € balioko partizipazioa izan du.

2014ko uztailaren 29an Saiolanek aurkeztu zion Arrasateko Udalarri CEI Arrasate SAren 2013ko urteko kontu auditatuen txostena. Auditoriako txosten horretan, “Estado de Cambios en el Patrimonio Neto correspondiente a los ejercicios anuales terminados al 31 de diciembre de 2013 y 2012” izeneko kapituluaren 12garren notan, 29garren orrialdean, azaltzen da 2013an eginiko kapital murrizketa, entitatearen Ohiko Batzar Orokorrak 2013ko maiatzaren 20an hartutako akordioaren arabera. Operazioa egiteko arrazoiak jasotzen dira bertan: “[...] Como consecuencia de la necesidad de provisionar el Impuesto de Valor Añadido a cobrar de los ejercicios 2008-2011 (nota 13), la Sociedad cerró el ejercicio 2012 con un importante desequilibrio patrimonial. Los accionistas de la sociedad tomaron en reunión de Junta Universal Ordinaria de fecha 20 de mayo de 2013, el acuerdo de realizar

una reducción de capital para compensar pérdidas y dotación de reserva voluntaria, por importe de 373.329 euros, con el fin de restablecer el equilibrio entre el capital y el patrimonio. La reducción de capital se ejecuta mediante la disminución del valor nominal por igual de todas las acciones en 2,54 euros, quedando su valor en 1,70 euros por acción [...]” Aldaketa honen ondorioz, Arrasateko Udalak CEI Arrasate SA-ren kapital sozial osokoa duen %13,52 partizipazioaren balioa 114.480 € takoa izatetik, 45.900 € takoa izatera pasa da, hau da, bere balioa %59,90ean murriztu da.

Gaia aztertu zen Enplegua eta Garapen Ekonomikoko Batzordean 2014ko irailaren 24an, bertan Batzordeburua, EAJ eta PSE-EE ordezkariak zeudela, eta kontuan hartuta Udal Plenoa izan zela bere egunean Arrasateko Udala CEI Arrasate SAren akzioduna izatea erabaki zuen organoa, aho batez erabaki zuten Udal Plenoari 2013an burututako kapital murrizketaren berri ematea, honenbestez:

Arrasateko Udalaren Udal Plenoa jakinaren gainean jarri CEI Arrasate S.A.n 2013ko ekitaldian %59,90 eko kapitalaren murrizketa egin zela, Udalak bertan duen %13,52ko partizipazioaren balioa 114.480 € takoa izatetik 45.900 € takoa izatera pasatzeko.

4.- ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.

INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria):

Hurrengo izango zan ebazpenen berri ematea eta proposamen bat dago San Juan berriro profanatu izenerakin mozio bat aurkezteko EAJren partetik gai zerrendan sartzeko bozkatu egin behar da.

Mozioa gai zerrendan sartzeko **BOZKETA:**

Bertaratutakoak	20	
Aldeko botuak:	4	EAJ-PNV (4)
Aurkako botuak:	16	BILDU(11), ARALAR (1) ETA PSE-EE(4)
Abstentzioak	0	

Beraz ez da onartzen.

5.- GALDE-ESKEAK.

JUAN KARLOS GARITANO (EAJ-PNV):

Galde eskaeretan konfirmatzea gure mozioari buruz bi gauza alde batetik argitzeko, alde batetik San Juan berriro profanatu izan dala eta beste aldetik argi eta garbi udaletxeak neurri batzuk hartu beharko dituela atzera honen gauzak ez dadin suertau. Behintzat hori ikusten da beharra dauela Arrasateko kaleetan eta hori nahi dugu eskatzea eskaera honetan.

INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria):

Ez dakit beste interbentziorik dagoen gai honekin.

ARITZ ARRIETA (PSE-EE):

Arratsaldeon. Nosotros comentar que efectivamente estamos en contra de estos actos de profanación como dice el PNV lo que no estamos de acuerdo que el ayuntamiento tenga que tomar ningún tipo de medidas en un entorno privado sabemos en este pueblo han pasado bastantes cosas más graves que todo y el PNV nunca ha pedido tampoco que se tomen medidas por parte del ayuntamiento en proteger otro tipo de entornos a los que supongo que todos ustedes entenderán a lo que me refiero. ¿No?

Yo creo que en su día ya hubo fondos públicos por los que apostó el ayuntamiento y se pusieron para reformas y adecuaciones de la parroquia yo creo que a quien le toca en este caso proteger su patrimonio es al propietario en este caso es la parroquia.

Bien distinto es la segunda parte que comenta el portavoz del PNV que igual en las calles hace falta más vigilancia ¿No?. Pero yo creo que eso es otro tema diferente que se podía tratar pero cuando estamos hablando de protección de patrimonio privado yo creo que lo tiene que proteger es la propia entidad propietaria de ese patrimonio.

Bien es cierto que en todo caso la policía municipal y entiendo que ya lo habrá hecho habrá abierto una investigación para poder esclarecer los hechos pero yo entiendo que nuestro grupo no va ir más allá de apoyar ningún tipo de moción en la que exija al ayuntamiento en que tome medidas de que tipo además, de protección del patrimonio privado como es el caso. Si estaba de acuerdo cuando yo hable ayer con el alcalde en que se hiciese publica una declaración institucional en el que efectivamente los grupos se tomaba la determinación de condenar los hechos para que no volvieran a ocurrir pero de ahí a que el ayuntamiento de forma unilateral tenga que tomar medidas para proteger el patrimonio privado pues entendemos que no puede ser así.

MARIA UBARRETXENA (EAJ-PNV):

Bakarrik nahi nuke aklatzea gure mozioa ez dela patrimonio pribatu baten alde udaletxeak medidak jartzea, ulertzen dugu San Juanen irudia herriarentzako sinbolo bat dela Maritxu Kajoen irudian dan bezala, ez dugu ez elizaren alde ez elizarekin zerikusi daukan ezer ez baizik eta San Juan herri honetako tradizio bat delako hemen San Juan jaiak ospatzen dielako, Maritxu Kajoi jaiak ospatzen dien bezala eta gure mozio ildo horretatik doa, ez doa ez patrimonio pribatu ez eliza eta ez saiatu nahasten ze gure mozioaren ildo ez doa hortik eta badakizue. Bakarrik aklatzea.

JOXE ETXEBERRIA (Aralar):

Bakarrik Aritzek oin komentau duena esatea beste taldeen artean adostuta dagoela eta eurek planteatzen zuten ildo nagusienak bai bizikidetzari buruz bai errespetoari buruz eta zentzu hori oinarri hartuta gaur kaleratu dugula idatzi bat eta oinarrian hori da herrian landu behar dana. Errespetoa eta bizikidetzak elkarki kultura diferenteak izanda ere bai patrimonio aldetik eta bai beste siniskeratik errespetoan bizitzea eta hori da guk adostu duguna eta nik uste oinarritzkoa hori da. Norbaitek zalantza bat baldin badauka hori irakurtzea izango litzake adostu eta kaleratu dena.

INAZIO AZKARRAGAUZAR (Lehendakaria):

Nik ere berdina esatea guk sortutako minarekin bat egiten dugula eta horrelako ekintzak gaitzestu egiten dugula gogor eta esatea beste alde batetik, noski udaltzainak bere lana egin behar duela eta egiten ari da. Orduan hor ez dugula jartzen inolako zalantzarik gure indarrak jarriko ditugula gure neurrian holako gauzak ez gertatzeko. Hori da.

JUAN KARLOS GARITANO (EAJ-PNV):

Bakarrik bukatzeko eta argitzeko ekimen hau gure alderdiarena izan dela argitzeko eta ekimen honen faltak esan duten moduan ikusten genuela horregatik guk ez dugu sinatu prentsara aurreratu dauen prentsa ohar hori.

Horregatik guk daukagu betea eta pleno honen ostean kaleratuko dugu medio guztietara zer guztiak betea falta diren denak sartuta.

INAZIO AZKARRAGAUZAR (Lehendakaria):

Nik uste dut argi geratu diezela posturak.

PACO GARCIA (PSE-EE):

Buenas tardes. Brevemente, yo simplemente para manifestar mi protesta porque algo que se ha votado que no se trata en este pleno finalmente se ha tratado y por lo tanto quiere manifestar mi protesta de que cuando se trae algo al pleno y se dice que no se trata no se trata.

INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria):

Bengoak nahi du zeozer esatea hitza emango diot.

PUBLIKOTIK (Bengoa):

Arratsaldeon guztioi. Alkate jauna zinegotzi jaun andreok ni naiz Xabier Bengoa Arrasate Zientzia Elkarteko kidea eta kide bezala AZE bezala daukagu beharbada gure lanetan eta horrela erakutsi dugu orain arte gure ondarearen defentsa, ondare naturala, historikoa, artxiboetako eta beste eta beste eta uste dut gutxi izanda ia asko joatea

Hori esanda gogoratu behar dugu nola Aprendiceseko letrak gu ditugula zergatik desagertzeraz zihozten egun baten ostu zuten batzuk beste egun batean beste batzuk eta azkenean guk jaso genduen eta guk daukagu inoiz behar badira letra horrek guk daukagu.

Bigarrena gu lanean gabiltza sentsibilizazio bat jartzean herrian ondarearen alde gu ez gara sartuko norena dan jabetza baizik eta Mondragoetarrak ondare batzuk ditugula, ondare motzak, ondare xumeak, ez daukagu Abu Sinbel bat edo Burgoseko katedral baina bai daukagu gureak direnak, gureak generazioetan egindako ondarea gurea da eta minez zergatik pentsatzen genuen lan batzuk eginda zeudela hala nola 2012 urtean egindako hitzaldi batean “El cielo desde Mondragon” ikusten genuen zer nolako marabillak daukagun hor eraikuntza aldetik ba soltizioa udako soltizioa egiten denean nola ematen dion eguzkia gure San Juani. San Juan zabal bati.

San Juan herritarren san Juana ni ez noia jabetzaren alde uste dugu gure ondarea dela eta hori bigarren aldiz atentaua izan da hor ikusi dut hor haserre bat dagoela eztabaida bat baina San Juan berriz hondatua izan dala, hondatua dan bezala aita eternoa beste aldean ze pasatzen da aita eternoaz, aita eternoak hainbat atentau izan ditu.

Aita eternoa zoritxarrez hori ez da originala gure originala Donostialdean daude, Donostialdean gure artean egon beharrean hala nola Lezetxikiko hezurretatik aita eternorarte bukatuta taila miresgarria. Hortan gure eskubidea da udaletxeari herritar moduan ondare aldeko herritar moduan babestu dezala eta ahal den neurriak jartzea ez gaurtik biharrera baizik aldeko neurriak jartzea baina adostu. Nik esango nuke danok alde gaudela ondareen alde gaudela ez jabetza ondarea San Juan Mondragokoa da jabetza beharbada parrokiarena izango da baina san juan hori mondragoetarrena da. Mondragoetarrena ba San Juan egunean dihoazen elizara, entirrotara, elizkizunetara... gizadietan hor egin dan san juan abestia, mondragoetako gazteria urteetan eta urteetan egon dan hor, hori gure ondarea da, gure ondarea da eta guk ez daukagu ondarerik galtzeko da uste dut gaur irizpide xumeetik ez dala jarduntzeko norena dan

zeinena dan mondragoetarrena da. Besterik ez eta eskatuko nizueke guztioi alde egotea ez dakit zer nolako neurrietan halako gauzak alde batetik ez pasatzeko eta beste bat berreskuratzeko.

INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria):

Eskerrik asko, Xabier nik uste dut posturak oso argi dauzela ez dugu nahi buelta gehiago ematea gaiari eta bueno argi bueno hartuko dugu kontuan zuk esan duzun moduan gaia bukatutzat ematen dugu eztabaida gai honi buruz.

PACO GARCIA: (PSE-EE):

Volver a manifestar mi protesta pero además decirle al señor Bengoa nosotros respetamos todo el patrimonio, respetamos las religiones, respetamos todo pero también recordarle que el ayuntamiento el edificio es patrimonio cualquier edificio que hay en este pueblo es patrimonio del pueblo y todos hay que protegerlos y no les he visto a ninguno de ustedes venir aquí cuando ha habido pintadas que han estropeado patrimonios, cuando ha habido amenazas etc. A defender ese patrimonio que es el patrimonio de todos que es los edificios por ejemplo.

INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria):

Bukatutzat eman behar dugu azkeneko

MAIDER MORRAS (BILDU):

Nik uste dut ados gauzela danok ondarea zein dan bai pribatu izan publikoa eraikinak edo ez eta horren kontra egiten diren erasoak edo sentimenduak batez ere mintzen dituenen ba babestu egin behar direla eta errekonozitu egin behar direla egiten dan kaltea hortan ados gauz estea nahi dut hika mika hortan ez garel sartuko beste gauza bat ze neurri hartzen gauen edo ez eta hortan adostasuna daukagun edo ez baina nik uste dut kontzeptu basikoan ados gauzela eta hori da gure idatziak esan nahi izan dauena. Ondarea bai pribatua, publikoa eraikinak izan leikeena edo eraikinak ez diena bez.

INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria):

Hartu mikrofona baina ez dakit azkenean tiratzen gabitz eta nik uste dut honek ez dauela behar holako tratamendua.

Publikotik:

Terminar una aclaración ¿finalmente el ayuntamiento se va a hacer cargo de alguna manera va a tomar medidas para evitar la repetición de esos actos?

INAZIO AZKARRAGURIZAR (Lehendakaria):

Azkenean hori eta beste gauza batzuk gertatzen diezenak herrian nik uste dut antzerakoak diezela ondare bat kaltetuta gertatzen danean hor inbestigaxinu bat martxan jartzen da udaltzaina adi egoten da eta udala bere lana egiten dabil gero dago Aritzek komentau dauena tokia dagoen lekuan toki pribatua da orduan elizak parrokiak badauka bere erantzukizuna be bai hor guk gure aldetik dauen dana egingo dugu eta bueno salatu egin dugu be bai gertatutakoa. Orduan gero lanean egongo gara udaleko talde guztiak haber ze neurri hartu leikez baina nik uste dut ez duela eskatzen gai honek holako eztabaida horregatik pentsatzen dugu ez dela gai bat mozio moduan tratatu behar dana. Orduan ia bukatutzat ematen dut plenoa eta nik uste dut akklaratuta gelditzen dela.

Eskerrik asko guztioi eta hurrengo arte.

Eta beste gairik ez dagoenez, Udal Plenoburuak, arratsaldeko 18:30tan, amaiera ematen dio bilkurari. Eta nik Idazkariak hori guztia ziurtatzen dut akta hau jasoz.

Arrasaten, 2014ko azaroaren 4a

IDAZKARIA

LEHENDAKARIA

Amaia Gorrotxategi Zubizarreta

Inazio Azkarragaurizar Larrea